

# JESUS BERBIZTUAREN PRESENTZIA

*Gugaitik hil eta berbiztu zan*

Beti sutan zagoz, Zu / Jesusen Bihotza,  
urtu gurarik gure / barruko izotza.  
Zu Kurutzan hil zinan, / Jaungoiko Bildotsa,  
bizi barri bihurtuz / gure heriotza.

**1**

*Biztu da, ez dago hemen*  
(Mt 16,6)

Bizirik dagonaren  
bila hilobira?

Aingeruak deadar:

“Hemendik jagi da”.

Zer poza sartzen jakun

bihotzen erdira!

Gureztat ere berbok ai,ai,ai  
esanak bai dira.

**2**

*Zer zabize hilen artean, bizi*  
*danaren bila? (Lk 24,5)*

Jesus berbiztu jaku

gaur hilen artetik,  
hauxe sinisten dogu  
ume ginanetik.

Eskerrik asko, Jesus,  
bihotz-bihotzetik!

Zorionak ta aintza ai,ai,ai  
guztion partetik!

**3**

*Bai zentzunbakoak zareela!*  
(Lk 24, 25)

Zentzunbakoak jentea,

Jesusek dinonez;

Itxura onak baina

fruturik emon ez...

Hemen gaukazuz, Jesus,

Zuri esker onez,

bete gaituzulako ai,ai,ai

zure zorionez.

**4**

*Jauna ikusi dot eta hau eta*  
*hau esan deust (Jn 20,18)*

“Jauna ikusi dot gaur  
hau poz ta zorion!

Eta zuentzat dakart  
hainbeste barrion”.

Jesusen testigua  
ezin geldi egon,  
hartu dauan grazia ai,ai,ai  
beharko dau emon.

**5**

*Ene Jauna eta ene*  
*Jaungoikoa! (Jn 20,28)*

Tomasen: “Ene Jauna  
eta Jaungoikoa!”

ikusi eta gero  
sinistutekoa.

Ikusteko sinistu  
da gure kredoa,  
Jesusentzat hori da ai,ai,ai,  
zorionekoa.

**6**

*Jauna da!” (Jn 21,7)*

Mamuaren bildurrez

lagunak ziranez,

Joan da testigua,

“Jauna da” esanez.

Testigutzak behar dau

esana ezpanez,

baina askoz gehiago ai,ai,ai

egintzaz ta lanez.

**7**

*Aitak Ni bialdu nauan lez, Nik ere*  
*bialtzen zaituet zuek (Jn 20,21)*

Zelan zuen artera

Aitak Ni bialdu,

halan Nik bialduta

zuek be zabaldu.

Behar latza dala-ta

Ez gero makaldu,

“Jesusen Izenean” ai,ai,ai  
ez, ezin da galdu.

**8**

*Ni zuekin nozue egunero*  
(Mt 28,20)

“Ez ahaztu egunero  
nagola zuekin”,

hau jakinda, zelan ez  
bihotzak irakin!

Heriotza desegin

eban Jesusekin,

orduan baietz lortu ai,ai,ai  
biok alkarrekin!

**9**

*Eta bere eskuak jasorik, bedeinkatu*  
*egin ebazan (Lk 24,50)*

Aitarengana doa

Seme on leiala,

zintzo bete ondoren

Aitak esan-ahala.

Harrezkero gureztat

da zeru zabala;

anaiok, ez daukagu ai,ai,ai

Aixkide makala!

**10**

Zure azken agurra

da bedeinkapena

ta honek betiko dau

bere luzapena.

Hori da gureztat gaur

saririk onena:

zeruan alkartzean, ai,ai,ai

ha bai zoramena!

A. Martzel